

Blokea lanean ari

TXILLARDEGI



BEHIN eta berriz O.N.U.an eta beren eguneroko praxian Autodeterminazio-eskubidea ukatua duten Estatuak (Estatu Batuek, Frantziak, Erreinu Batuak, etab), bapatean Kuwait

«nazioaren» liberazioa eskatzen dute misiloak eta guzti...

Baina yankien basakeriak txalotzen dituzten horietan, «Bloke espainolistakoek», alegia, zakarki zafratu dute «Euskaria» taldekoen eskaria. «Ahorbatez», jakin dugunez, Gasteiz-ko Corregidoretxoek berriro ere Autodeterminazioa legezatzeko eta bideratzeko bidea hutsi dute.

Arabiar herri-multzoko atala besterik ez den Kuwait-en «askapenaren» alde sarraskia bedekatu ondoren (Jauregik egin-berriak dituen deklarazioek gezur hutsaren maila guztiak utzi dituzte apal), «Blokeko» hiper-demokratek argi-eta-garbi esan diete atzo «Euskaria-ko» borrokakide abertzaleei, Euskal Herriaren Autodeterminazioari buruz ez dagoela ezer egiterik; eta asuntxo hori bakanetan uzteko.

Hots, berriro esateko, bere nazio-izaera eta eskubideak ukatuak dituen herria ez baita demokraziaribizirik (eta gu, hortaz, ez baizik demokraziaribizirik), «Blokeko» Mitterrand-en morroin fidelek besterik esaten badute ere), gure herria *Inposaketa husean* bizirik dela salatu behar dugu. Eta Gasteizko Korrejidoretza eta Bloke Espainolista, *Inposaketa* horren morroin leialak besterik ez direla.

Alferrik diogu hau, ongi dakigu. Halako, batez, ordea, beren balioa izan dezakete etsimenduan oratutako lerro triste hauek. Agian bai!
Eta, jakina, hitz bakartak «Euskaria-koei»; eutsi!

Ibiltari 3 (Maddi ta Terexari)

TXOMIN PEILLEN



OROITZEN al zaizue, hirurok Bombay-en ginauden Gandhiaren etxean. Haren borroka baketsuaren berri irakurria joan ginien Indira Gandhi ta Mahatma Gandhi-ren errelekuaren ikuste-
ra. Zer leku ederra, berdea, garbia, usainik gabekoa, apaindura barik. Hor hari lauz zabala! Bakarrik egon nintzen, zuek ta enparauak urrundu, hariari musu bat egiteko, ezen Aldjerian ikusitakoak ikusi ondoren, indarkeriaren eta odol ixurtzearen aurkako ezinikusia go-gooan sartu baitzait.

Bai hauek bai hitsak Gandhi-ri ta bere irakasbideari gertatuak: bere aberriaren askatasuna, odol tanta bat ixuri gabe-jardietisi ondoan fanatiko batek hiltzen duela —eta aberiak hil behar ez diren sineste hortako jendeak— beren musulmanen anaiekin, hizkuntzakidekin, elkar hiltzen hastea, bigarrena, Indiaz bi zati egin zenean, askatasuna, independentzia halaxe lortu eta bihar-muñean.

Orain berriki, Hinduista ta musulman integrista Bharat Errepublikan berriro hilketan hasi dira. Hinduista santa bezala hartzen da andere gazte bat, aintziñako ohitura ankerra piztu nahi izan duelako eta bere alargun burua bizirik botatu duelako senar hilaren errealdian. Denbora berean —nahiz eta gure informatzaileek esan kasteekin ez zela arazorik igaz, aurten 1990-an behe-kastako patriak, bazterkinak jazarri dira eta karguetan, ikasketetan berdintasuna eskatu eta orduan Unibertsitatetako aberatskumeak greban jarri, goihen kasten pribilegioa gordetzeko.

Ez! ari guztia ez dagoz Ekialdetik, han ere ezinjasanak, ilunak ere badira. Halere, joan den urtean uste nuen euskal aldizkari batek Gandhiaren mendeurrena aipatu zuela, ezen gorabehera guztien arteen lurzabal guztirako da haren mezua, bihoak omenaldi xume hau, negoziaketa borroka odoltsua baino gorago ipini zuten horren oroitzapenez.

EL PAIS

Ilunpeko lanbidea

Nazioaren gaineko agente eraginkor bat ez dagoen bitartean horrela izaten jarraituko du, erremediorek gabe, nahiz eta arma ederrek asko predikatu. *Gerak indarra dela medio* galerazi nahiko dituen (gizabanakoaren artean hilketak galerazi nahi izan diren bezala) Leviatan hori ez da zerutik jausiko, baizik eta lokatz arteki sortuko dela: egungo NBetik, eta sistema demokratikoa duten herrien artean botere militar gehiena duenetik, EEBBetatik.

FERNANDO SAVATER / 1991-1-18

EL INDEPENDIENTE

Badator indarraren erresuma

Nazioarteko demokraziarantzeko aurrerapausu herabeak sutsutsu egingo dira bere jarrera esigente eta ezarkorrenetan gairale agertuko den estatubatuar Administrazio baten prepoten-

tziazen menpe. Indarraren eta nazioarteko Eskubidearen interpretazio inperialistaren erresuma izango da. Honen aurrean, mundu arabiarrean eta Hirugarren Munduan orohar masen frustrazioa, zeina terrorismo eta ezegonkortasun bilakatuko den.

CARLOS PARIS / 1991-1-18

EL CORREO ESPAÑOL

Oinarrizko harria

Baina Benegas, itxuraz be-
deren asteartean atea betiko itxi zuenak, Bandresen bitartez Arzalluzekin kontaktuan jarri zen. Nahiz eta *bikotearen* elkarrizketak EArekin gaur bertan has-
ten diren denborak estutzen dituelako, badirudi sozialistek EAre *renovacion democrati-
caren* laguntzarekin ez diotela zirikatzeari utziko azken une arte. Arazoa da PSOEak alde bikoa nahi duela, edo ezer ez. Tripartitoarena ez du atsegin, ezta Onaindia-Bandresen RNrekin ere.

RAMON MUR / 1991-1-18



MAXIMO / EL PAIS / 91-1-18

SUD OUEST

Umiliaketaren arriskuak

Konstatazio honek gerra lehen bait lehen amaitzearen beharra dakargu, hala nola masa arabiarren baitan umiliaketa sentimenduak sor ditzakeen arriskuak neurtzea. Grina pizten duen krisi honetan iraganek ere parte hartu duela frogatzen dute

Mauritanian edo Aljerian atzo ospatutako erreazio antifrantsesek. (...) Zuzenbidearen aldeko kanpaina batean enga-
turik, gure herria da babesik gabekoenetakoa. Hau ez da sorpresa; are gutxiago agintzen gaituztenontzat. Hona arrazoi argi bat biharmona prestatzeko, eta Kuwaiten askapenerako gerran, diplomazia frantsesak lagun dezan gure partaidetza.

JOEL AUBERT / 91-1-18

ZUZENDARIARI

Autobia eta demokrazia

Autobia dela eta gauza asko esaten ari da egunotan, bai alde batetik bai bestetik. Gaurko agintariaren aldetik esaterako: «demokrazia arriskuan dago», «gizartearen aurkako txantaila da», «gehiengoa Leitzarango Autobiaren alde dago», «lanpostu asko arriskuan daude»...

Egia da demokratikoki aukeratuak izan direla gaurerungo agintariak. Baina, zer esan nahi digute? Egiten duten guztia demokratikoa dela?

Kasu honetan nahastu egiten dira demokratikoa eta ona. Agintari demokratikoen (demokratikoki aukeratuak) erabakitzen duten guztia ona ote? Hala balitz ona izango litzateke soldaduak Golkora bidaltzea: espainiar agintariak demokratikoki aukeratuak izan dira. Berdin Vietnamgo gerra, Panamako inbasioa, eta arriskuan dagoen Golkoko gerra...Eta herrietako agintariak hartutako erabakiak ere demokratikoki eta onak izango lirateke beti (kontuz

marmarekin!!). Autobiaren auzian erreferenduma eskatu da, gu denon eritzia eta botua. Zer ez al da demokratikoa eta ona alde bietako arazoarik entzun ondoren geure iritzia ematea?

T. ELORTZA (HERNANI)

Guiztiak dira presoak eta «batzu» presoagoak

Presoei buruzko Arz-
tzain-Eskutitza argitaratu dute Bilboko Gotzainek. Eskertzekoa da. Polemika ere sortu da. Preso politikoen politikotasuna legitimatu edo egiten omen du Eskutitz horrek. Neure eritzi xumea azaldu nahi nuke arazo honetaz.

Horregatik soilik ez bada ere, Eskutitzak dionez, gabezia sozialek sortarazten dituzte presoak; ekonomiazko, hirigintzakiko, heziketakiko eta kulturazko gabeziak babez ere. Gabezia horien artean daude aipatzen ez diren politikazko gabe-


ziak eta horietatik sortzen dira gatazka politikoak eta, ondorioz, preso politikoak.

Preso politikoen arazoari adarretatik oratzearen bil-
durrez edo ari direla gotzai-
nak ematen du. Eta dirudie-
nez horixe berori erakusten du preso hauen senitatekoek eskatutako elkarrizketa atze-
ratzeak ala bertan behera uzteak. Dena dela, preso hauen politikotasunaren fro-
gak etengabe ematen dizkigu Madrileko gobernuak beste preso guztiengandik bereiz-
ten dituen tratara arras des-
berdina ematen bait die. Horren azken froga argia be-
zain gogorra preso hauen etengabe-
ko sakabanaketa dugu.

Presoei buruzko pastoral-
tzak, Gotzainen aburuz, osoa eta egokia izateko, erreali-
tate sozial zuzengabea eta aldrebesa aldatzeari ere egin behar dio. Beraz, zuzen-
gaberki politikoko aldatzeari ere bai. Erroka zaila, zailik baldin bada, baina beharrez-
koa eta luzaezina gure Eus-
kal Herri honetan. Eta kris-
taua.

MARTIN ORBE (ERANDIO)

PERTSONAIA



Sadam Hussein

Batzuek Saddam deitzen dizute besteak Satan hutsean, zu zerala ta mundu gehiena jarri da mala letxean. Gorroto pixkat ez ote dago zure kainoien hotsean, zenbaitek balak ditu buruan ta misilak bihotzean.

KOLDO ALBERDI

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria:

MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Lehendakaria:

JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkarria:

JOXE MIEL ZUMALABE

Gerentea:

INMA GOMILA

Zuzendaria:

PELLO ZUBIRIA

Zuzendariordeak:

NEREA AZURMENDI
LUZIAN ETXEZAHARRETA
IÑAKI URIA

Publizitateak:

KORNELIO ROTETA

Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E
Lege Gordailua: SS 80090

HELBIDEAK

Eguitza soziala eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1 / 20010 Donostia / ☎ 45 59 57 / Faxes: 46 90 22
Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea, 01-02 Pabilioak / 20160 Lasarte-Oria / ☎ 37 15 45 / Faxes: 36 54 93

Publizitatea: Loliola, 14-1.3 / 20005 Donostia / ☎ 42 69 96 / Faxes: 42 93 18

Araba: San Antonio, 20-1. ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxes: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎ 17 80 78 / Faxes: 17 80 77

Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1. ezker. / 48002 Bilbo / ☎ 423 90 62 / Faxes: 423 94 60

Lapurdi / Nafarroa Beherea / Zuberoa: 2, Galuperia kaia. / 64100 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Faxes: 59 25 75 11